

SARRERA

Zestoako historiari buruzko hainbat lan plazaratu izan da zenbait historialariren eskutik. Oso gogoan hartzeakoak dira, adibidez, Joan Erentxun arroarrak Zestoari eta inguruko herri eta auzoei buruz egindako lanak, edo Jose Maria Zuntzunegi apaiz zestoarrak argitaratutakoak, azken aldian herriko “Danbolin” aldizkarian irakurri ahal izan ditugunak, etab.

Guk ere bide horri jarraitu nahi diogu, geure indar eta ahalmenen neurrian behintzat, Zestoako historia orokorra idatzi nahian. Horretarako hainbat artxibotako agirien kopiak jaso ditugu (hau da, iturrietara jo dugu), gure herriari buruzko lehen eskuko albisteak izateko ahaleginean.

Dena den, Zestoara eta historiaurretik 1601. urtera arteko denboraldira mugatu nahi izan dugu espazio-denborazko esparrua. Barne hartu ditugu, ordea, XIX. mendera arte Debakoa izan zen Arroako parrokiaren lurrak, orain Zestoako parte direlako. Egia esan, Zestoako historiaurreaz, Antzinaroaz eta Goi Erdi Aroaz dauden berriak emango ditugu, baina kontuan hartu behar da Zestoari buruzko albisteak bor-bor eta ugari Behe Erdi Aroan eta ondoren (1383. urtean hiribildu gisa sortu zenez gero) agertzen direla. Mendetan aurrera egin ahala, XV. mendean eta, batez ere, XVI. mendean, agiriak gero eta ugariago dira (XIV. mendean hogeit bat, XV. mendean berrehun eta hirurogei baino gehiago, eta XVI. mendean milaka). Kopurua era esponontzialean hazten da denboran aurrera egin ahala. Lehenago, ordea, nekez aipatzen da Zestoa agirietan.

Guk Zestoari eta mende horiei dagozkien ahalik eta agiri gehienak jaso eta sailkatu egin ditugu, kronologikoki sailkatu ere. Horretarako Zestoako, Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko artxiboetan ibili gara arakatzaille/biltzaille-lanetan. Asko dira bildutako agiriak, baina ez guztiak; izan ere, den-denak jasotzea ezinezkoa baita. Hala ere, Txirrita bertsolariak esango lukeenez, “alegiñaren faltan ez daukat kontzientzian zorrikan”.

Ohar bat egin beharra dago, ordea, jasotako agirien hizkuntzei buruz. Gehienak Gaztelako erromantzean idatzita daude, eskribauak horretara behartuta zeudelako. Apur batzuk latinez ere badira, Elizakoak batez ere, Elizaren hizkuntza ofiziala ia oraintxe arte latina izan delako. Oso-oso bakanak dira euskarazkoak (agiri zatitxoren bat edo beste besterik ez), eta etsigarria da gure hizkuntza aztertzeako asmoa duenarentzat.

Dena den, erromantzezko agiri guztietan daude euskal izenak. Batez ere toponimia guztiz euskalduna azaltzen da Zestoako eta inguruko agiri guztietan. Argi eta garbi ikusten da euskara zela herriko hizkuntza nagusia, eta elebakar euskaldunak zirela gehien-gehienak. Elizetan, adibidez, apaizek oharrak euskaraz ematen zituzten, jendeak uler zezan. Ohar haiek nola jakinarazi ziren esanez gero eskribauak erromantzez egiten zuen agiria.

Hala ere, agirietan Zestoako toponimoetan noizbehinka agertzen dira euskararekin azal ezin daitezkeen leku-izenak. Agian zelta hizkuntzaren, gaskoiaren edo, gehienetan, latinaren bidez argi daiteke esanahia, baina beste hizkuntzetako erroa duten hitzak beti ere euskal fonetikaz edo euskal atzizki edo hitzez lagundurik egoten dira, hau da, euskarak irentsiak eta bere eginak.

Orain, jasotako agiriak transkribatu eta historia idaztea dagokigu, baina egoki deritzogu, Behe Erdi Aroa iritsi baino lehen, Zestoako eta inguruko Geologia, Historiaurrea, Antzinaroko Historia eta Goi Erdi Arokoa, labor bada ere, ematea. Gero, Zestoa hiribildu bihurtu ondorengo garaia sakonago aztertzen saiatuko gara, eskueran dugun materiala ere ugariagoa delako.

Zestoako historiari osatu dugun lehen liburua plazaratzen dugu orain, eta lanari jarraipena emateko pozik hartuko genituzke zuen iradokizunak edo zuzenketak. Horretarako <iazkune@euskalnet.net> helbide elektronikora mezuak bidaltzea eskertuko genizueke.

Eta sarrera honi amaiera emateko, lanean laguntza eta erraztasunak eman dizkidan hainbat pertsona eskertu nahi nuke. Zerrenda ugaria da, eta ahalik eta osoena ematen saiatuko gara. Hona hemen, bada, delako zerrenda:

- Mikel Zalbide euskaltzain donostiar lagun jakituna, batez ere euskara aldetik onomastikari eta hiztegiari buruz emandako argibide zehatzengatik.
- Fernando Arzallus, Zestoako Udaleko artxiboaren arduraduna, besteak beste, eman dizkidan erraztasun guztiengatik.
- Joan Mari Aranberri Eizagirre lagun mina, Zestoako baserri guztien argazkiak ateratzen eta zenbait artxibotan laguntzeagatik.
- Joan Mari Mendia senidea, Arroako Xantana ermita edo baserria non zegoen erakusteagatik.
- Don Jose Maria Zuntzunegi, Zestoako historiaz izan duen kezka ondorioz historia-lan bikainak egin dituelako.
- Amaia Garate, Zestoako Udal Liburutegiko arduraduna, eskainitako erraztasunengatik.
- Jose Antonio Agirre Begiristain, zenbait testu latinetik itzultzeagatik.
- Mari Anjeles Aiertza Lopetegi eta Donostiako udaletxeko artxiboko gainerako langileak, San Miliango markesaren fondoa kontsultatzeko eskainitako laguntzagatik.
- Frantzisko Conde, Donostiako San Telmo Museoko arduraduna, lilitarren artxiboa kontsultatzeko emandako erraztasunengatik.
- Pello Aizpurua "Lilibe", utzitako argazkiengatik.
- Jose Anjel Garro, Soledad Rodriguez andrea eta Gipuzkoako Elizbarrutiko artxiboko lankideak, besteak beste, Zestoako, Arroako, Aizarnako eta Aizarnabalgo parroketako liburuak kontsultatzean eskainitako laguntzagatik.
- Ramon Martin Sukia eta Kontxi Zabaleta, Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoan, Oñatin, eman dizkidan argibideengatik eta Zestoako agirien hainbat kopia eskuratzeagatik.
- Ana Telleria andrea eta Valladolideko Kantzelaritzako Artxiboko lankideak, Zestoako auzien kopiak eskuratzeagatik.
- Andonegi andrea, Simancas-ko artxibozain basauriarra eta lankideak, Zestoako agiriak eskuratzeagatik.
- Xabier eta Imanol Azkue zumaia lagunak, onomastikan emandako laguntzagatik.
- Arantza Eizagirre, Zumaiako Udaleko Artxibo Historikoa kontsultatzean eskainitako laguntzagatik.
- Raimundo Amutxastegi Debako Udaleko artxiboko arduraduna, Zestoari zegozkion agiriak eskuratzeagatik.
- Mikel Elortza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kartografia-zerbitzuaz arduratzen direnak, sarean kontsultatzeko prestatu duten sistema ederragatik eta hark eman dizkidan datu interesgarriengatik.
- Jose Luis Sales Tirapu Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboaz arduratzen den apaiz jauna, batez ere Zestoako eta Aizarnako parrokiez diharduten agiriak eskuratzeagatik.
- Irantzu Lexartza lagun geologoa, Zestoako geologia lantzeko emandako argibide baliotsuengatik.
- Mitxelena Kulturuneko langileak, hainbat liburu eta lan kontsultatzeko eskainitako laguntzagatik.
- Bitor Herrero ea Lurdes, Azpeitiko Udaleko Artxiboko arduradunak, Zestoako albisteak eskuratzen laguntzeagatik.
- Ane Otegi Atorrasagasti eta Tolosako Gipuzkoako Artxibo Orokorreko lankideak, Zestoari buruzko hainbat auzi eskuratzeko aukera emateagatik.
- Nekane Jimenez, Azkoitiko Udal Artxiboko arduraduna, agiri historikoen kopiak prestatzeagatik.
- Arantzazu Oregi, Bergarako Udal artxiboko arduraduna, agiriak eskuratzeagatik.
- Olatz Berasategi eta Loiolako jesuiten artxiboko lankideak, Zestoari buruzko hainbat agiri eskueran jartzeagatik.
- Hernaniko Udal Artxiboko arduradunak, egindako kontsultetan laguntzeagatik.
- Begoña Alkorta, Oñatiko Udal artxiboko arduraduna, zenbait agirien kopiak ateratzen uzteagatik.
- Borja Aginagalde eta Roberto Kerexeta, Bergarako Errekalde jauregiko Altzibar-Jauregi artxiboko zenbait kopia eskuratzeagatik eta emandako gainerako argibide interesgarriengatik.
- Luis Zabala jauna eta Ana Martinez artxibozaina, Donostian Zabala etxearen artxibotik agirien kopiak ateratzen uzteagatik.
- Zestoako Xabier Unanue alkate ohia, Idiakaitz baserriaren eta beste batzuen argazki zaharrak eskaintzeagatik.
- Enrique de Areilza, Mutrikuko konde jauna, bere etxeko artxiboko bi agiriren kopia hain prestuki bidaltzeagatik.
- Begoña Andres, Hondarribiko Udal Artxiboko arduraduna eta lankideak, agirien kopiak bidaltzeagatik.
- Koldo Argandoña jauna, Urretxuko Udal Artxiboko arduraduna, agirien kopiak eskaintzeagatik.

- Antonio Prada jauna, Zumarragako Udal Artxiboko arduraduna, agirien kopiak bidaltzeagatik.
- Mikel Irure zestoar espeleologoa, Zestoako haitzuloen berri zehatzak emateagatik eta argazkiak uzteagatik.
- Fernando Txueka Isasti lagun jakintsua, Elkanotarrei eta ingurukoei buruz eman didan informazioagatik eta hitzaurrea egiteko lana bere gain hartzeagatik.
- Bizente Davila irudigintzan eta maketazioan egindako lanagatik.
- Jone eta Onintza Irureta senideak, eman dizkidaten aholkuengatik, eta Naiara Irureta aurkibideak prestatzen egindako lanagatik.
- Agustin Korta jauna, Arroako Erkisetako irudiak hartzeko emandako erraztasunagatik.
- Rikardo Azkue jauna, Arroako Akertza desagertutako baserri zaharraren irudiak eskaintzeagatik.
- Joan Eizagirre jauna, Arroako Mardu baserri zahar desagertuaren irudiak eskuratzeko aukera emateagatik.
- Jose Mari Etxabe jauna, Oikiako Mantzizidor (oraingo Lore) baserri zaharraren irudia eskaintzeagatik.
- Iraetako Zubimendi jauna, Buskandegi baserri desagertuaren argazkia emateagatik.
- Pili Lizaso informatikari usurbildarra, aurkibideak eta estekak prestatzeko informatikaren arloan egindako lanagatik.

Era berezian eskertu nahi dut Jesus Martinez Pina laguna. Paleografian duen jakinduriari esker, Zestoari buruzko Agiritegiko hainbat testu maisuki transkribatu du. Beste hainbat elkarlanean transkribatu dugu, eta zordun natzaio arlo horretan irakatsi didan guztiagatik. Mila esker, zinez, Jesus.

Horiez gain, alde zehar edo moldez lan luze honetan orain arte lagundu didaten guztiei, eta aurrerantzean ere lagunduko didatenei, eskerrik beroenak eman nahi nizkieke, denek parte hartu baitute Zestoaz ditugun ezagumendu historikoak aberasten.

Donostian, 2011ko udan

Iñaki Azkune Mendia

